

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

OÑATIKO UDALA

*Oñatiko XV. Erakusleihu Lehiaketaren oinarri arautzaileak eta deialdia. BDNS (Identif.): 656286.*

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/656286>).

Oñatiko Udalak, 2022ko urriaren 27an egindako Osoko Bilkuran, honako akordio hau hartu zuen:

*Lehenengoa.* Onartzea dirulaguntza lerro honen oinarriak: Oñatiko XV. Erakusleihu Lehiaketa.

*Bigarrena.* Oñatiko XV. Erakusleihu Lehiaketaren 2022ko deialdia onartzea eta dirulaguntza hauek finantzatzeko udal arrekontuen 1.1000.480.241.06.01 (5508) diru-ataletik eta bere lotespen mailatik sarientzako 2.000 €ko gastua eta parte hartzaile bakoitzarentzat 50 €ko laguntza baimentzea, behin betiko kopurua izen emate epea amaitzen denean zehaztuko delarik.

*Hirugarrena.* Onartzea 2022ko deialdiari dagozkion epeak:

Izena emateko epea: 2022ko azaroak 30.

Erakusketaren epea: 2022ko abenduaren 12tik 31ra bitartean.

*Laugarrena.* Erabaki honen bidez onartutako oinarriek eragina izango dute Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren egunetik aurrera.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari.

Interesdunek Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa jarri ahal izango dute zuzenean erabakiaren aurka Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan, bi hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, partikularrek, aldeztu aurretik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokeke Gobernu Batzordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik jarri berraztertzea berariaz ebatzi arte edo presuntzio ezetsi arte. Hori guztia, egoki irizitako beste edozein errekurtso aurkezteari kalterik egin gabe.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da hau.

Oñati, 2022ko urriaren 27a.—Izaro Elorza Arregui, alkatea.  
(6836)

AYUNTAMIENTO DE OÑATI

*Bases reguladoras y convocatoria del XV. Concurso de escaparates de Oñati. BDNS (Identif.): 656286.*

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/656286>.

El Ayuntamiento de Oñati, reunido en Sesión Plenaria de fecha 27 de octubre de 2022, adoptó el siguiente acuerdo:

*Primero.* Aprobar las bases de la siguiente línea de subvenciones: XV. Concurso de escaparates de Oñati.

*Segundo.* Aprobar la convocatoria 2022 del XV. Concurso de escaparates de Oñati y autorizar con cargo al presupuesto municipal, partida presupuestaria 1.1000.480.241.06.01 (5508) y su grado de vinculación un gasto de 2.000 € para la financiación de los premios y 50 € de ayuda para cada participante, determinando la cantidad definitiva al finalizar el plazo de inscripción,

*Tercero.* Aprobar los plazos correspondientes a la convocatoria 2022:

Plazo de inscripción: 30 de noviembre del 2022.

Plazo de la exposición: Del 12 al 31 de diciembre de 2022.

*Cuarto.* Las bases aprobadas mediante el presente acuerdo surtirán efectos desde el día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa.

Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él Recurso Contencioso-Administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer Recurso Potestativo de Reposición ante la Junta de Gobierno, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello, sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para general conocimiento.

Oñati, a 27 de octubre de 2022.—La alcaldesa, Izaro Elorza Arregui.  
(6836)